

# Prest!



BERBETAN: **ALBERTO ORTIZ SAN VICENTE** BILBOBUSEKO GIDARIA

ERREPORTAJEA: **GUKA! BIHAR GAUR BAINO HOBE** BARKUA: **IBARREKOLANDAKO JAIK**

4-255-256-257-258



## Sustatzailea



## Babesleak



## Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu  
**Prest!**

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak .....
- Helbidea .....
- Telefonoa .....
- E-posta .....
- Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com  
94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu



Itsaso Larramendi Elexgaray - Jon Zubieta		<b>Iritzia</b>	4
Aitor Landaluze Isasi		<b>Gureak kanpoan</b>	5
<b>e erreportajea</b> GUKA! BIHAR GAUR BAINO HOBE			6
<p><i>Aurkezpen ekitaldia ekainaren 13an egin zen Erripako kaian, ibai ertzean, arratsaldeko 19:00etan. "Gu gara, Guka gara" lelopean batu ziren Bilboko adin guztietako euskalgintzako kideak eta Oihana Bartra, Liher Barrantes, Olatz Silva eta Maialen Gagok hartu zuten hitza.</i></p>			
San Inazio Eskolaren 50. urteurrena		<b>Eskolak</b>	10
Deustuko mendietako pikotak		<b>Behin batean</b>	12
Lur azpiko hotsak/Begoñako eliza induskatuko dute, Vecuniaren bila		<b>Artikulua</b>	14

<b>b berbetan</b> ALBERTO ORTIZ SAN VICENTErekin			16
<p><i>Alberto Ortiz San Vicentek 40 urte ditu. Basaurin jaio zen baina 15 urte daramatza Deustun eta 2016tik Bilbouseko gidaria da. Orain dela bost hilabete behin betiko kontratua egin zioten, baina ordura arte zortzi urtez behin-behinekopean ibili da lanean; opor barik, egutegi barik, bizitza antolatu ezinik...</i></p>			
San Inazioko zubia (2020)		<b>Irudiak berbetan</b>	21

<b>EUSKAL KULTURA</b> Agoteak, Euskal Herriko herri ahantzia
<b>JAI HERRIKOIAK</b> Ibarrekolandako Jaiak
<b>NUTRIZIOA</b> Kirol hidratazioa udan: errendimendu eta osasunerako gakoak
<b>KULTUR TXOTX</b> Danel Lauzirika Erkiaga eta Juan Fernández Aurre



**harkua  
bete  
herba**

24

# Prest!

**Argitaratzailea:**  
BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustu 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com

**Zuzendaria:** Katalin Gaztelu Mentxaka  
**Erredakzioa:** Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurreaga, Axular Arostegi  
**Kolaboratzaileak:** Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura  
**Argazkiak:** Ecuador Etxea  
**Publizitatea:** Nerea Cubillo Urkizu  
**Diseinua:** B05T  
**Maketazioa:** Laura Freijo Iglesia  
**Inprimategia:** Antza  
**Ale kopurua:** 2.800  
**Lege Gordailua:** BI-571-01



## Protokoloen alde


Protokoloaren potentzial politikoa aztertzen du Hesterrek Xenofeminismo liburuan. Sare ezberdinen osaera gida dezakeen medio dezentralizatu bezala deskribatzen du, antolakuntzarako aparatu bat, teknologia sozial bat. Kontrol banatuaren funtzionamendu materializatua izan daitekeena, autoeraketarako eta emantzipaziorako tresna. Jakin baitakigu antolaketa-egituren definizio faltak gutxi batzuen tirania bilakatzeko arrisku handia daukala.


Bilboko Konpartsen Federazioaren parte izateko jarraitu beharreko protokoloak ezartzen dituen sarrera baldintza nagusiak dira: kide kopuru minimo bat izatea, konpartsen balioekin bat egitea, eta federazioaren ekosistema anitzean elkarlanean aritzeko gaitasuna erakustea.

Bilboko Konpartsak dira Bilboko jaiak Aste Nagusi bilakatzeko

dituztenak, bigarrenaren izaera ezin baita ulertu lehenengoen existentziarik gabe. Baina Aste Nagusian parte hartzeko edo txosna bat jartzeko ez dago zertan Bilboko Konpartsen parte izan beharrik. Hau jakinik, eta hainbat kulturpilek betoan aurka sinatutako manifestua irakurrita, galdera sorta Bilbotik: zein puntutara arte ezagutzen dute sinatzaileek Aste Nagusiaren antolaketa ereduak? Zer buruz ari dira jaietan parte-hartzeko eta txosna jartzeko debekuaz ari direnean? Agerraldi publiko bat bitarteko egokia al da gatazkan inplikaturakoen arteko hurbilpena sustatzeko? Zein legitimitate daukate artistek egunero-egunero gure hiria dinamizatze lanean ari diren konpartsakideak, beren protokoloak eta beren erabakiak seinaltzeko?

Biba ixilean eta anonimotasunetik gure jaiak antolatzen dituzten militanteak. Biba Aste Nagusia!

 Jon Zubieta  
Sanitarrak



## Datorren gerraren kronika labur bat

Inorentzako ez da sekretu bat azken urteetan nabarmen gora egin duela mundu osoan zehar joera belizista batek, gure egunerokoan ikus dezakeguna etengabeko diskurtso eta berrietan.

Bizi ditugun garai ezegonkorretan gero eta ozenago entzun daitezke gerra-hotsak, armagintzarako diru inbertsio erraldoietan eta ustezko etsai baten inguruko mezu alarmista eta oldarkorretan bihurtzen direnak. Izan ere, azken hamarkadetan pentsaezinak ziren neurri eta erabaki politikoak martxan daude jada mendebaldeko estatu ugarietan, besteak beste, derrigorrezko zerbitzu militarra edo gerra-ekonomia ereduak gradualki ezartzeko legeak.

Historian zehar gertatutako aurrekariei erreparatu, ez da batere zaila asmatzea gorpil zoro honen bukaera zein izan

daitekeen, eta horrek gizartearen klase bakoitzerako izango dituen ondorioak. Gutxi batzuk lortuko dituzten etekin eta botere-kuota profitagarriak soilik gehiengo batek pairatuko duen sufrimendu eta pobrezia neurriarekin konparatu ahal izango dute basakeri belizistari biziraungo dioten horiek.

Funtsean, iraganeko tragediei ez ikusia eginez, ondorio pentsaezinak izan dezakeen fartsa erraldoi batera herrestan garamatzate ezker zein eskuineko alderdietako agintariak, paperezko segurtasun eta askatasunaren izenean.

Diotena diotela, izan dezagun argi benetako etsaiak sarraskia hauspotzen duten horiek direla, eta aspaldi deklaratu zigutela gerra.





## Aitor Landaluze Isasi

**Jatorria:** Deustu

**Bizitokia:** Erroma

**Lanbidea / ikasketak:** Lehen Hezkuntzako ikaslea



### Noiztik zaude erroman eta zerk erroman zintuen hara?

Otsailaren amaieran iritsi nintzen Erromara, eta bost hilabete emango ditut hemen UPV/EHUko unibertsitateko Lehen Hezkuntzako ikasle gisa, Erasmus programan parte hartzen.

### Zergatik aukeratu zenuen Erroma erasmus egiteko?

Egia esan, Erroma ez zen nire helmuga-zerrendako lehentasunetako bat, niri Latinoamerikako herrialderen batera joatea gustatuko zitzaidalako. Hala ere, Europan zehar ematen zizkiguten aukeren artean Erroma zegoen eta etortzeko aukera eskaini zidatenean berehala onartu nuen.

### Gazte euskaldunei zer eskaintzen die Erromak? Italiak?

Erromak eta Italiak gauza asko eskaintzen dituzte; azkenean, horrelako esperientzia batean, beste unibertsitate batean ikasten egoteaz gain, beti ezagutzen duzu jende berria, beste kultura bat ezagutzen duzu, beste ingurune batean mugitzen zara, eta horrek, pertsona gisa aberasten zaituela uste dut.

### Zelan moldatu zara han ikasketekin? Erraza izaten ari da? Zein zailtasun izan dituzu?

Momentuz ondo moldatzen ari naiz ikasketekin, nahiz eta ikasgai batzuk italieraz diren, irakasleak momentu

oro laguntzeko prest daude eta erasmus-ikasleak izanda, gure egoera kontuan hartu eta egokitzapenak egiten dituzte

### Zerk harritu zaitu? Zein antzekotasun aurkitu dituzu?

Gehien harritu nauen gauzetako bat Erroman dauden monumentu historiko ugarien xarma izan da. Betidanik argazkietan ikusita eta oraingoan hurbiletik ikusi ahal izatea benetan ikaragarria da. Antzinarotik gaur egun arte horrelako eraikuntzak mantentzea eta hortaz disfrutatzea zerbait paregabea iruditzen zait. Bestalde, kultura eta ohitura aldetik antzekoak garelako esango nuke.

### Italiera ikasi duzu?

Nahiz eta etorri aurretik hizkuntza eskolan ikasten egon nintzen, baietz esatea oso ausarta izan daiteke nire aldetik, izan ere, oso eskas esaldi pare bat dakizkit esaten, edota gehienez hitz gakoak dakizkit, baina ez dakit Italiara jarotasun egokia ezta nahikoa menderatzen.

### Zer gomendatuko zenioke Erromara doan norbaiti?

Hainbat gauza gomendatuko nizkioke Erromara doan norbaiti; Alde bateatik, Erromak dituen txoko historiko guztietaz disfrutatzea, horrez gain, hemengo jatetxe edota saltokietako pasta, pizza eta izozkiak dastatzea...

Beste alde batetik, ahal izanez gero, jendetza ekiditeko, turista gutxiago egon daitekeen urtaro batean etortzea. Eta azkenik, diru-zorroa prestatzea, leku askotan gauzak ez baitira merkeak.

### Kaletik aparte, etxean ere janari italiarra jaten duzu? (pasta, pizza...)

Ez, guztiz kontrakoa, etxean denetarik jaten saiatzen nahiz pasta eta pizza izan ezik. Azken finean etxetik kanpo bazkaldu edo afaltzen dudan bakoitzean, jaten ditugun gauza gehienak pasta eta pizza baitira.

### Etxeko, Deustuko/Euskal Herriko zer duzu faltan?

Argi daukat gehien faltan botatzen dudana familia eta lagunak direla, egunerokotasunean agian baloratzen ez dugun gauzetako bat da, guretzat ohikoa baita ia egunero elkarrekin egotea eta beste leku batera joatean pertsona berriak ezagutzen dituzu eta binkulu berriak sortzen dira, baina nire kasuan beti oroitzen naiz etxean utzi ditudan horietaz. Horrez aparte, arlo sentimentalak alde batera utzita, faltan botatzen dudana beste gauzatariko bat gure gastronomia da, batez ere, patata-tortila. Adibidez, Erroman egonda, goizean lagunekin kafesnea eta tortila pintxo bat jatea den plazerraz konturatu nahiz, gure artean behintzat ohitura bat izaten baita.



## GUKA! BIHAR GAUR BAINO HOBE

*Aurkezpen ekitaldia ekainaren 13an egin zen Erripako kaian, ibai ertzean, arratsaldeko 19:00etan. “Gu gara, Guka gara” lelopean batu ziren Bilboko adin guztietako euskalgintzako kideak eta Oihana Bartra, Liher Barrantes, Olatz Silva eta Maialen Gagok hartu zuten hitza.*

Testua eta argazkiak: PREST! eta Berbaizu

Euskarak Bilbon duen presentzia areagotzeko nahian GUKA aurkeztu da. Euskalgintzako kide eta eragileak batzen dituen mugimendu partehartzaile eta eraldatzaileak GUKA sortu du, Bilboko euskaltzaleen “plaza askea”. Euskararen alde egiteko. Noizbait, Bilbon, euskaraz libre aritzeko.

Bilboko hainbat espaziotan lanean dabizen zenbait euskaltzale; Berbaizu, Zenbat Gara, BIRA... kezka berdin batek biltzen zituen eta Bilbon diren euskararen aldeko egitasmo horiei edo horiekin batera prozesu ikuspegi bat txertatu zuen mugimendu bat sortzeko beharretik sortu zen GUKA. “Euskaldunok egunerokotasunean, eguneko funtzio horiek betetzeko ditugun zailtasun eta oztopoetatik alegia, bihar gaur bai-

no egoera hobean egongo den euskararen aldeko mugimendu bat hauspotzeko beharretik”, adierazi zuen Maialen Gagok.

### Helburu hurbilago bat

Egitasmoaren helburu nagusiak; euskara erdigunean kokatuko duen jendez osatutako mugimendua eraikitzea, Bilbon euskaraz bizitzeko aukera erreala bilakatzea eta gero eta Bilbotar gehiagok euskaraz bizitzeko hautua egitea dira. Horretarako, bi egiteko nagusi identifikatu ditu GUKAk: Alde batetik, lan aldarrikatzaile/borroka ideologikoa; euskararen gaia politizatu eta euskararekiko diskurtsoa zabaltzeko bidea egitea eta bestetik, lan eratzalea; finean euskarak gero eta botere gehiago irabaztea hainbat eratan, jadanik euskaraz existitzen diren espazioak





indartzea, horrelakoak beste auzo batzuetan hauspotzea eta berriak sortzea.

**Euskaldunek egunerokotasunean bizi duten egoera** (Bilbon)

Liherr Barrantesek Uriolari eskainitako elkarrizketan honako hau adierazi zuen: “Bilbon denetik dugu gehien, eta, horretara bagoaz,

elebakarren kopuru handiena ere Bilbon dago eta justu hemen euskaldunak ez gara elebakarrak”.

Harira, GUKAkoek eurek, euskarak behar duen botereaz hausnartu eta gakoetako bat erosotasuna dela azpimarratu dute; “bi hizkuntzak herri berean elkarbizitzen dutenean, ezagutzaz gain, erosotasuna sartzen






da jokoan. Euskaraz egitea erosoia izateko, eroso hitz egin ahal izateko, euskarak boterea behar du”.



GUKA indarrez abiatu da. Bere sortzaileek adierazi dutenez, luzarorako proiektu bat da, eta jadanik lanean ari dira euskararen sustapenean eta euskal hiztunen eskubideen defentsan. Hala, Bilboko euskaltzaleek ondorengo mezuak erakutsi dituzte aurkezpenean: saretu, justizia, unibertetsala, aliantzak eraiki, aisialdia, jaiak eta kultura euskaraz edota salbazioa azkar.

GUKAko sustatzaileek azaldu dute ez dutela bigarren mailako hiztun izatearekin konformatzeko asmorik. Aldiz, Bilbok euskararen alde egin dezan nahi dute, eta hiriak euskaldunak aktiboki babestea eskatzen dute. Haien ustez, euskararen egoera ez da soilik arrazoi sentimentaletan oinarritzen, justizia kontua ere bada.

Horretarako, komunitate gisa hedatzea, sendotzea, ahaldundu eta aktibatzea ezinbestekoa dela diote, gaur egungo gizartearen erronkei aurre egiteko. Hori dela eta, GUKA mugimendua Bilboko euskaltzaleen topagune eta elkargune bihurtu nahi dute, bertan elkartu eta aurrera egiteko. Euren helburua argia da: euskara bizirik eta indartsu mantentzea, eta euskaldunen eskubideak bermatzea. Era berean, euskaraz zeharlerro izango diren eremu batzuk identifikatu dituzte. Hala nola jaiak, kultura, helduen euskalduntzea, haur eta gazteen aisialdia, jatorri eta kultur aniztasuna eta merkataritza zerbitzu eremua.



XXX.



### Deustualdeko euskalgintza

Berbaizutik ere ilusioz bizi dute GUKAren sorrera. Bilboko espazio berriaren sortze-prozesuaren parte izan dira, eta elkarrengandik asko ikasi dute. Aurrerantzean ere, jarraituko dute elkar-elikatzen, izan ere, Berbaizuk baditu GUKAk identifikatutako lan-eremuetan hainbat

proiektu martxan: Txantxiku aisialdi taldea, Entrenatzen proiektua, Jai batzordea... Sustatu berri dituzten saretzei esker, proiektu horien ahalmena bideratzeko eta beste auzo batzuetan esperientziak sortzeko bidean daude.







# SAN INAZIO ESKOLAREN 50. URTEURRENA

*Aurten San Inazio Eskola publikoak 50 urte bete ditu eta oraindik auzoan eskola gorriak bezala ezagutzen diren arren, izena ez da urte hauetan aldatu den gauza bakarra.*



**Testua eta argazkiak:** San Inazio Eskola

50 urtetan hezkuntza lege ugari bizi izan ditugu eta horietara moldatzeko etengabeko formakuntza eta eraldaketa prozesuetan murgilduta ibili gara.

Azken curriculum dekretuak kompetentzietan oinarritutako ikaskuntza sustatzen du, hots, “ziurtatu behar da ikasle guztiak XXI. mendeko erronkei pertsonalki, sozialki eta profesionalki arrakastaz aurre egiteko moduan daudela. Hori guztia, ongizate emozionaleko inguru inklusibo eta seguru batean.”[ 75/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Haur Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.]

Legea betetzeko eta ikasleen garapen osoa eta orekatua lortzeko helburuarekin, San Inazio Eskolako Haur Hezkuntzan Mugimendu Autonomoa metodologia berritzailea ezarri dugu.

Honen bidez, haurra hezkuntza prozesuaren erdigunean kokatzen da eta bere garapenerako giltzarriak diren alderdiak zaintzen dira, hala nola, besteekin dituen harremanak eta objektu/materialekin dituen interakzioak.

Hau guztia ekosistemak deituriko espazioen bidez burutzen da. Ekosistemak bizirik daude eta haurren beharren ara-






bera aldatzen dira. Estetika zainduaz gain, mugikortasuna ahalbidetzen dute, motibazioa eta sormena handitu eta emozioen erregulazioan laguntzen die. Gainera, zain-tza, gizarteratzea, jasangarritasuna eta bizikidetzaren sustatzen dituzte.

Gure eskolan, 3tik 6 urtera arteko haurrak libreki mugitzen dira artea, matematika, zientzia, hizkuntza, eraikuntzak eta jolas sinbolikoaren ekosistematik eta bertan beraiei egokitutako material (naturalak, manipulatioak, sensorialak...) eta proposamenak dituzte. Jolasa eta esperimenduzko jarduerak nagusiak, eta horien bidez ezagutzen eta interpretatzen dute mundua.



Maisu-maistren rola ere asko aldatu da 1974tik geroztik. Lehen ikaskuntzak transmititzen zuena bazen, orain gidari eta bidelaguna da. Helduaren lana, gaur egun, espazioak diseinatzea, material egokiak aukeratzea eta haurren ikaskuntza prozesuaren behatzaile izatea da. Hau guztia, talde lanean eta familien lankidetzarekin, izan ere, hezkuntza komunitate osoak parte hartzen du haurren heziketan.

Berrikuntza metodologikoekin jarraituz, 2024/2025 ikasturtean Lehen Hezkuntzan ikas egoera interdisciplinarrarekin hasiko gara. Gainera, STEAM gela sortuko dugu, bertan, laborategia, pentsateka, prentsamendu konputazionala, sormena eta digitalizazioa landuko direlarik. Honen bidez, gaur egun ditugun 340 ikasle inguruk aukera izango dute hezkuntza eta prestakuntza tekniko-zientifikoa jasotzeko, bai Haur Hezkuntzan baita Lehen Hezkuntzako etapan ere.



Honetaz gain, orain arte esku artean izan ditugun proiektuekin ere jarraituko dugu, horien artean, ahozkoasuna (berbalapiko), hizkuntza-murgiltze programa (EUSLE), elkarbizitza proiektua...

50 urte hauetan hezkuntza asko aldatu bada ere, oinarriak bere horretan jarraitzen du; auzoko umeei arrakasta aukerak ematea, zorientsu hazi daitezen eta bizitzako erronkak segurtasunez aurrera eramateko prest egon daitezen.



## DEUSTUKO MENDIETAKO PIKOTAK

*Aurreko zenbakian Deustuko mendien izenen gaia jorratu genuen. Testu hartan birritan agertu zen Pikota leku-izena, tontor banari atxikita. Baina, zer ote dago pikota izen horren atzean? Zer ziren gure mendietako pikota haiek?*



Artxanda, XVIII. mendeko plano batean. F letra izan liteke Zarandoako pikota.

**Testua:** Hektor Ortega

Zintzo-zintzo hasiko naiz esanez nik neuk, behinik behin, ezin diodala galdera horri segurtasun handiz erantzun. Han eta hemen ikertzen aurkitu dudana ekartzera nator, besterik gabe. Zer zen, bada, pikota? Pikota harrizko zutabe bat zen. Normalean zutabearen enborra zilindrikoa zen, eta goialdea konikoa. Askotan, goialde horretatik lau beso harrizko ateratzen zen, batzuetan animalia-aurpegiz apainduta. Beso horietatik eskegitzen zituzten, katez, sokaz edo girgiluz lotuta, legeak zigortutako pertsonak. Izan ere, pikotak horixe ziren, urkabeak, urkamendiak. Bertan gauzatzen zituzten heriotza zigorrak, baina baita bestelako zigor txikiagoak ere: ordu batzuek edo egun batzuek han edukitzen zituzten legea urratzeagatik zigortutakoak edo bertan erakusten zituzten, adibidez, iruzur egindako tabernariaren edo errotariaren pisuak edo balantzak.

Pikotak Europa osoan zabaldu ziren Erdi Arotik aurrera, harik eta XIX. mendean justizia burgesak sistema zaharra ordezkatu zuen arte. Izan ere, pikotak justizia egiten zuenaren jurisdikzioa ere

erakusten zuen, izan hiribildua, jaun feudala edo erregea. Ez ahaztu Lege Zaharreko Europan jurisdikzio anabasa handia zegoela, harik eta iraultza burgesak justizia bakarra ezarri zuen arte, estatu-nazioarena.

Kontua da bigarren zeregin horretarako, alegia, jurisdikzio barrutiak seinatzeko bazirela beste zutabe zilindriko batzuk ere, harrizkoak. Azken hauek, askotan, jurisdikzioa hasten zen lekuan bertan jartzen zituzten, bide ertzean, bertara heltzen zen bidaztiak jakin zezan non sartzen zen. Gaztelaniaz "rollo" esan izan zaie mugarri horiei, hain zuzen, zilindrikoak zirelako.

Antzekoak itxuraz eta antzekoak zereginenez, nahas-mendua are handiagoa da kontuan hartzen badugu batzuetan mugarri zilindriko horiek justizia egiteko ere erabili zituztela, baita exekuzioak ere. Hortaz, sarritan izen batekin esan izan zaie biei. Euskaraz, batzuei eta besteei, pikota edo urkamendi. "Pikutara!" esamolde ezagun bera hortik datorkigu.



Buradongo pikota (Araba).

## Enekuri eta Zarandoa

Deustun leku bitan aurkitu dugu Pikota leku-izen moduan. Lehenengoa, Enekuri eta Sepuruko Atxa arteko mendilerro mehean dago, hain zuzen, Enekuriko errepidetik hurbilen dagoen tontorra. Hori Pikota moduan jaso du Erandioko toponimia ikertu duen taldeak, ahoz inguruetako bizilagunek esana. Eta Bilboko udal artxiboan ere, 1931 eta 1935eko agiri banak “alto de la Picota en el monte Cabras” eta “el término de la Picota del monte Cabras en Enekuri” aipatzen ditu. Horra hor, beraz, lehenengo Pikota.

Bigarrena, berriz, Zarandoa mendia da, Artxandan. Mendi hori Deustuko garaiena da (230 metro) eta Begoña eta Sondikarekiko mugetatik hurbil dago. Guk agirietan Zarandona edo, are, Zarandoa moduan ikusi dugu, batez ere. Hala ere, inguru horri Pikota ere esan izan zaio. Tontorretik hurbil base-rria egin zutenean (XX. mendearen hasieran), Mendiburu izena jarri zioten arren, Pikota ere esaten zioten ingurukoek. Gaur egun, mapa batzuetan

Pikotamendi gisa ageri da. Eta, indar gehiago eman nahian edo, parean baina Sondikako lurrean dagoen muinoa, Urkomendi gisa ikusiko dugu mapa horietan. Pikota eta urkamendia, zerbait esan nahi digutela ematen du.

Enekurikoari buruz ez dugu ezer aurkitu agiri zaharretan, baina Zarandoakoak arrastoa laga du. Izan ere, Zarandoako tontorraren eta Artxandako goialdeko bidearen artean “rollo” ospetsu bat egon zen. Agiri batzuetan “rollo de Archanda” izenarekin aipatu zuten. Batzuetan, zehaztasun gehiagorekin: “rollo que está en la loma de Archanda azia la parte de Deusto”. 1737an, Bilboko mugak ikuska-tzeari ekin ziotenean, informazio gehiago laga zuten: “El rollo de Archanda que señala el mapa está existente pero con falta de lo principal que son los dos brazos que solía tener para señalar la jurisdicción, con el uno acia Begoña y con el otro acia San Bartholomé [Berriz] y Luchana, los que se le deberán poner quando se pase a la diligencia judicial aprontando para entonces las piedras y cal necesarias al pie del rollo, el que también con anticipación se podrá reforzar ripiándole con cal y piedras menudas”. Horra hor, beraz, gure pikuta, harrizkoa eta beso biduna, nahiz eta 1737an galduak zituen.

Baina ez zen jurisdikzio mugarri hutsa. Justizia egiteko lekua izan ei zen, noizbait. 1674ko maia-tzean Bilboko mugarri guztiak ikuskatu zituzten eta, tartean, jakina, Artxandako pikota. Agirian irakur daitekeenez, Artxanda gaineko bidean “está una insinia de un rollo fuera de dicho camino y junto a él, y dichos nombrados [Bilboko Udalak eta albo-herriek izendatutako adituek; Deusturen izenean, Juan Aldekoa] digeron que en el dicho rollo antiguamente se hacía Justicia por los alcaldes de la villa de Bilbao”.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





**Testua:** Itsaso Larramendi

Lurpean dabilta eta gure hiriaren zimenduak astindu nahi dituzte instituzioetatik at funtzionatzen duen zirkuitu fanzinerora sortuz. Kaleko autoedizioa elikatzen dute eta espazio auto-gestionatueta azaleratzen dira. Lur Azpiko Liga dira.

Lur Azpiko Liga orain dela urte erdi inguru sortu zen kolektiboa da, urtean zehar autoedizio topaketa ezberdinak antolatzea helburu duena. Taldearen sorburu izan zen lehen jutatizoa abenduan egin zuten, eta ordutik hona, kolektiboari eta antolatuko dituzten topaketei forma ematen ibili dira. Egindako lanaren lehen ospakizun publikoa joan den maiatzaren 18 eta 19an izan zen Deustun: Katakomba, autoedizioaren tuneletan zehar dabilzan pertsona prekarioen topaketa.

Deustuko iskina ezkutu batean antolatu zuten Katakombaren lehen edizio hau, La Kobra kolektiboaren espazio berrian, eta bi taldeen lehen aurkezpen publikoa egiteko baliatu zuten. Izan ere, La Kobraren espazioa atontze lanetan dagoen kontzertu-areto independentea da, musikaz gozatu eta dantzatzeko gune auto-gestionatua, lan-egun irekien bitartez eraikitzen ari direna (adi haien sareetara).

Lur Azpiko Ligaren eta La Kobraren arteko elkarlanaren fruitu izan zen festa, eta bi eguneko programazioa antolatu zuten larunbat eta igandean zehar. Larunbat eguerdian tronpeta jotze batek eman zion hasiera jaiari, eta Estrella Electrónica eta Txuck Turnerren pintxadek girotu zuten topaketaren lehen parte. Jarraitzeko, Joni Txintxes eta Billy Ladillaren kontzertuak dantzan jarri zituen bertaratutakoak; segidan, Mort and Kombat-en binilo pintxadarenkin gozaten jarraitzeko.

Lasai hasi zen arratsaldea Ixa Blancoren “Se busca público” poesia ikuskizunarekin, eta La Woman-en pintxadak musikatu zuen fanzine postuetan zehar kuxkuxeatzera hurbildu zirenen arratsaldea.

Igandean tronpeta jotzearekin abiatu zen berriro eguna, eta fanzine jaurtiketa txapelketan aritu ziren animatuenak La Kobra kolektiboak musika jartzen zuen bitartean. Eguerdian Sage Against the Machine taldeak jo zuen, ondoren, Burusoil Killa-k pintxatu, eta monokopia tailerra ere egon zen grabatu forma honekin esperimentatu eta ikasi nahi izan zutenentzat. Eguna eta asteburua Katakombaren lehen edizio honen inguruko bizipenak eta hausnarketak partekatuz bukatu zuten parte-hartzaileek.

Hiria saldu digute eta hiria berreskuratzeko lanetan dabilta Lur Azpiko Ligako kideak, La Kobrakoak, eta egun argitan sarri ikusezinak diren beste hainbat kolektibo. Eskerrak lurpean oraindik ere bizia dagoen.





# BEGOÑAKO ELIZA INDUSKATUKO DUTE, VECUNIAREN BILA

Testua: Hektor Ortega

Datozen asteotan Begoñako elizan zundaketak eta, jarraian, indusketak egiteari ekingo dio Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare zerbitzuak. Arkeologo talde batek, Alberto Santana deustuarra buru, urtebetez jardungo du basilikapean zer dagoen argitara atera nahian. Azken helburua harrigarria da: erromatar garaiko balizko Vecunia hiria han dagoen ala ez baieztatzea.

Vecunia eta Begoña izenen arteko antzekotasuna begi bistakoa da. Hortik dator basilika ikertzeko arrazoi nagusia. Kontua da Vecunia nondik atera den. Gabriel Henoa jesuitari zor diogu. *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria* (1689-1691) liburuan aipatu zuen Loiuako Axpolueta haitzarteko galtzada zaharraren ertzean latinezko idazkunak zituen lauza bat zegoela. Harrian hauxe irakurri zuen: *Vecunienses hoc munierunt*, alegia, hau (galtzada hau) vecuniarrek egin zuten.

Zorigaitzez, harri hura galdu egin zen eta ezin izan da inolaz ere bere arrastorik aurkitu. Baina, luzaroan ahaztuta egon ondoren, azken urteotan adituek sinesgarritasuna aitortu diote Henoaren lekukotasunari eta vecuniar haien Vecuniarekiko interesa berpiztu da. Adituek hiru hipotesi darabiltzate: Vecunia izan liteke Burdin Aroko kastro

indigena bat, Malmasin edo Berreaga mendietako tontorretan daudenak adibidez, izan liteke erromatar *civitas* edo hiri bat, Oiasso (Irun) bezalakoa, edo izan liteke Goi Erdi Aroan eraturako herrixka bat, sasoi hartan Bizkaiko beste leku batzuetan sortu zirenen ezpalekoa.

Edozelan be, ikertzaileak daude Vecuniaren esparrua nahikoa zabala zela eta, hiria zegoen lekuan zegoela, Bilboalde osoa -Deustualdea tartean- eta Ibaizabaleko beheko arroa kontrolatzen zuela, harria Loiu eta Gatika arteko troka batean zegoen eta.

## Indusketak

Alberto Santanaren gidaritzapean, Begoñako elizako ikerketa fase bitan banatuko da. Lehenengo, zundaketak egingo dituzte, elizaren azpiko oinarriko haitza non dagoen jakiteko. Lan hori amaitutakoan, indusketak hasiko dituzte. Eliza lau ataletan banatuko dute eta bakoitzean hiru hilabetez zulaketa egingo dute.

Gaur egungo eliza XVI. mendean egindakoa da. Eliza txikiagoa ordezkatu zuen. Hura baino lehen ere, tenplu erromanikoa egon zeneko zantzuak daude. Eta haren aurretik zer egon zen datozen urteetan jakingo da.



# berbetan

ALBERTO ORTIZ SAN VICENTErekin

BILBOBUSEKO GIDARIA

**“Ez gara merezi ez dugun, sinatuta eskubidea ez den ezer**

*Alberto Ortiz San Vicentek 40 urte ditu. Basaurin jaio zen baina 15 urte daramatza Deustun eta 2016tik Bilbouseko gidaria da. Orain dela bost hilabete behin betiko kontratua egin zioten, baina ordura arte zortzi urtez behin-behinekopean ibili da lanean; opor barik, egutegi barik, bizitza antolatu ezinik...*

*Lan gatazka luzea da Bilbobusekoa: langileek bi urte baino gehiago daramatzate lan hitzarmenik gabe eta soldata izoztuta. Egoera dela eta, joan den urriaren 23tik lanuzteak anotlatu dituzte, eta apiriletik 24 orduko greba.*





# ez dagoen edo legez gure eskatzen ari”

## **Bilbobuseko langileak urriaren 23tik daramazue greban. Lehenik eta behin, zelan zaudete?**

Estresatuta, ezinegonda, nekatuta mental zein fisikoki... Argi daukagu borrokan jarraitu behar dugula gure eskubideak defendatu nahi ditugulako baina hilabete asko dira jada. Tentsioa igartzen da, bakoitzak bere iritzia du baina egia da, momentuz, elkartuta mantentzen garela eta ez dutela lortu gu banatzerik. Denok bide berean goaz.

## **Zeintzuk dira Bilbobuseko langileen aldarrikapenak?**

Bost puntu dira aldarrikatzen ditugunak: Lehenengoa; ekonomikoki KPIaren igoera, bigarrena; behin-behineko kontratuarekin % 62n dauden hogeitak langileak %100era pasatzea, hirugarrena; IT (aldi baterako ezintasun egoeran )egoeran egon diren lankideei 2023ko uztaileko pagatik aurrera zor zaiena ordaintzea, laugarrena ; jaiegunetan lan egiten duenak lanik gabeko egun bat izateko eskubidea berreskuratzea, eta bosgarrena; 100 pertsona inguruk behin-behineko kontratuekin lan egiten duten bitartean, lanpostuaren amortizazioagatik “soberan” dauden langile horiek existitzen direla dioen informea deusestatzea.

**Langileentzat ez ezik, herritarrentzat ere “duina” izango den Bilbobus bat aldarrikat-**

## **zen ari zarete. Zergatik?**

Pentsatu behar da nolakoa den Bilbo, pentsatu metroa nondik pasatzen den eta zenbat auzo dauden mendi bideetan. Nagusi askok hartzen dute Bilbobusa eta auzo batzuetatik besterik ez da pasatzen. Garraio publikoaren eskaintza eskasa duten auzo horietatik autobusaren frekuentzia areagotu nahi dugu.

## **Joan den maiatzaren 23an Bilboko Auzo Elkartearen federazioak Bilbobusaren aldeko manifestaziora deitu zuen. Zer balorazioa egiten duzue?**

Bilboko Auzo Elkartearen Federazioak deitutako manifestazioak ikaragarriko indarra eta ikusgarritasuna eman zigun; nekatuta zaudenean behar duzun bultzada hori, bakarrik sentitzen zarenean behar duzun babesa. Horri esker, komunikabideek gure gatazkari oihartzun eman diote, baina esan beharra dut publikatu den daturen bat edo beste okerra dela. Gure soldataren inguruan asmatu diren datuek herria gure kontrari jarri dute. Errealitate oso urrun doazen datuak dira. Gaur egun, lan baldintzez ari garenean, langile bakoitzak kobratzen duena gutxienekoa dela uste dut.

**Iritzi kontrajarriak egon dira zuen artean? Nolakoa da egoera hori kudeatzea?**

**“100 pertsona inguruk behin-behineko kontratuekin lan egiten duten bitartean, lanpostuaren amortizazioagatik “soberan” dauden langile horiek existitzen direla dioen informea deusestatzea”**



# berbetan

IDILY MERIDArekin

## ▷ ▷ SAKONEAN

### Nola eragin dio grebak zure eguneroko bizimoduari? Zer suposatu du zure errutinan?

Ezinegon konstante batean bizi gara. Eskerrak in-gurukoen laguntzari, lagunen animoei, familiakoen berotasunari...

Horrez gain, komunikabideetan kontatzen diren ge-zurrak irakurtzeak gogoak kentzen dizkizu. Gezur ho-riek eragin handia dute gizartean eta kaleko jendeak egia zalantzan jartzen duela ikusteak ito egiten gaitu.

### Bidaiariekin ze harreman duzue?

Normalean zure alde dagoenak esaten dizu. Bizit-zako arlo guztietan gertatzen den bezala, "entzun eta isil, baiezko biribil". Haserre dagoenak ez dizu esan-go. Azaltzen den egoera ez da errealitatea.



Bilbobuseko langile bakoitzaren egoera oso desberdina da. Badago bere ibilbide edo linea finkoa duena. Badago ibilbide guztietatik ibiltzen dena. Bada-go, ni bezala, ibilbide guztiak zein gau-txoriak egiten dituen. Beraz, norbera-ren interes pertsonalek ez dute zertan albokoaren interesen antzekoak izan. Halaber, asanbladan bozkatu eta era-bakitzen dugunez, ondo funtzionatzen dugu eta esango nuke alde horretatik eredu garena. Plantillaren %100ek egi-ten dugu greba.

### Maiatzean greba bertan behera utzi arren, berriro ekitea erabaki zenuten. Zer gertatu zen?

Antolamendu aldetik txarto jokatu genuen. Kautelazko etenaldia izan zen eta ez behin-behinekoa, jendeari hori ondo azaltzea zaila da. Asteartean hedabideetan agertu zen greba bukatutzat eman





genuela eta bi egun geroago grebarekin jarraituko genuela. Gauza da aurreakordioak ez zituela betetzen aurretik aipatu ditudan bost puntuetatik hiru.

### **Zein da Biobide enpresak mahai gainean jarritako proposamena? Ze iritzi duzue proposamenaren inguruan?**

Argi geratu dadila Biobide ALSA dela. Guk bost eskaera ditugu, haiek bost eskaera horietatik hiru aztertu dituzte. KPIren igoera ez da heltzen, %62koa ez dute kendu nahi, kromo trukaketa egin nahi dute eta hori ez da konponbide bat. Hirugarrena, 30 lanpostuen amortizazioarena, onartu dute eta falta diren beste biak konuan hartu ere ez dituzte egin.

### **Egun horietan, enpresa batzordeko presidentek eta idazkariak dimisioa eman zuten. Zerikusirik izan zuen horrek grebari berriro ekitearekin edo bertan behera uztearekin?**

Bozkatu aurretik, bagenekien aurreakordioa aurrera atera ezean, dimisioa aurkeztuko zutela. Mehatxu bat zela ulertu nuen nik. Gainera, hau izan zen azalpena: langileentzat “bidezkoena” lortu ez zutenez, ez zutela karguan jarraitu nahi. Nire ustez, presidentetza onartu baduzu, eta greba honetan lan egingo duzula agindu baduzu, amaitu arte egon behar zara. Bestalde, desberdina da greba batzordean dimititzea edo enpresa batzordean. Dena dela, enpresa batzordean jarraitzen dutenez eta erabakiak hartzen jarraitu dutenez, gehiengoa dute oraindik.

### **Zuen ustez nola eman beharko lioke Udalak konponbidea lan gatazka honi?**

Gure eskubideak dira, gure lan egoera da. Udalak kudeatzen duen enpresa bat izan beharko litzateke, bitartekaririk gabeko enpresa publikoa alegia.

### **Udalak dio hasia dela Biobiderek duen kontratua deuseztatzeko urratsak ematen. Nola dago egoera gaur egun?**

Udalak zerbait dio eta Biobidek beste zerbait beraz, ez dakigu nola dagoen egoera.

### **Nolakoak dira zuen elkarretaratze eta asanbladak eta zenbat pertsona izaten zarete hauetan?**

Egunero, goizaldeko 5:30etan kontzentrazioa egiten dugu. Hemendik gero manira zoaz. Lanik ez, dirurik ez eta hurrengo egunean berriro buelta. Azkenengo asanblada kalean egin izan behar genuen enpresako instalazioak erabiltzea debekatu zitzaigulako.

Horrez gain esan nahiko nuke askoz gehiago izan beharko ginakeela goizeko 5:30etan “cocheretan” edo manifestazioetan. Denok eman beharko genuke ematen duguna baino apur bat gehiago. Plantillako %15era ez dakit heltzen garen goizaldeetan, eta manifestazioetan antzeko. Gero bozkatzera jende asko dator.

### **Azken ordukoa**

Bilbobusen greba mugagabea “bertan behera” geratu da. Langileek ekainaren 27an bozketa bidez adosturiko baldintzak onartu dituzte; 332k baietz eta 186k ezetz bozkatu dute. Izan ere, UGT, CCOO eta LSB sindikatuek lortu dute aurreakordioa; ELA, LAB eta ESK kontra agertu dira.

Albertoren hitzetan, maiatzean aurkeztu zen aurreakordioaren antzekoa da gaurkoa baina grebarako indarrak ahuldu egin dira.

Bozketan, eragina izan dute langileen nekeak, grebaren geldialdiak eta Bilboko Udaletik, enpresatik (Biobide) eta zenbait komunikabideren eskutik jasotako boikotek.

**“Denok eman beharko genuke ematen duguna baino apur bat gehiago”**



KIROLA

## Deustuko futbol taldeak Playoffetan galdu du

Beasainen aurkako partida galdu eta play offetatik kanpo geratu da Deustuko futbol taldea. Etxezurin 1-0 irabazi ondoren, Beasainen, play offeko lehen kanporaketaren itzulerako partidari jausi ziren deustuarrak. Amaiera krudela izan zen deustuarentzat, porrota ahalik eta modurik txarrenean iritsi baitzen. Talde gipuzkoarrak 2-Oko garaipena lortu zuen lehenengo, Eizagirrek atsedendititik itzulita sartu zuen golarekin eta ondoren, deskontuan, etxeokoe euren atean bertan sartu zuten gola.



DEUSTUKO GAZTERIA

## Deustuko Gazte eguna

Ekainaren 8an ospatu zen deustuko GAZTE EGUNA. Eguerdiko 12etan frontenis finalarekin hasi, marianito pintxada eta herri bazkariarekin goiza itxi eta arratsaldean, umorezko bakarrizketak, karaoke ibiltaria eta dj XAUKENA XAUK eguna amaitzeko. Deustuko gazteak turistaraz jantzi ziren urterolez euren eguna ospatzeko.



**deustuko GAZTE EGUNA**  
ekainak 8

- 12:00 FRONTENIS FINALA**
- 13:00 MARIANITO PINTXADA**
- 15:00 HERRI BAZKARIA**  
76-tan saigal Oskarbin, Herriko Tabernan edota 688608589 telefonora bizuma eginez (idatzi "izen-abizenak/kuadrilla + gazte eguna").
- 17:00 UMOREZKO BAKARRIZKETAK**
- 18:00 KARAOKE IBILTARIA**  
Karkarkar egitasmoaren eskutik
- 21:00 DJ XAUKENA XAUK**

Kuadrillen arteko HISElfie lehiaketa, egun osoan zehar

KIROLA

## Emakumezkoen futbola omentzeko murala Ibarrekolandan

Emakumezkoen futbolaren egunaren eta San Mamesen jokatu zen UEFA Women's Champions League finalaren omenez, "Besarkada" izena duen murala aurkeztu da Ibarrekolandako institutuaren parean. Udana Juaristi euskal artistak diseinatu duen muralak Euskadiko futbolaren historia, 1971n Eibaren jokatu zen emakumezkoen lehen partidatzat hat daitekeena gogora ekartzen du.



AUZOAK

## Aldi supermerkatuaren irekiera Deustun

Ekainaren 5ean Bilboko Deustu auzoak supermerkatu berria jasoko du. ALDI katea, Madariaga etorbideko 47. zenbakian dago, Eraso Jeneralaren kalearekin izkinan. Enpresak Bizkaiko hiriburuan duen hirugarren establezimendua izango da, Emilio Campuzano plazan eta Sabino Arana etorbidean daudenekin bat eginez. Irekiera hau ez da bakarrik zabalduko inguruko merkataritza eskaintza, baina, era berean, ALDIren presentzia indartuko du Euskadin.





Urtea: 2020

Txema Luzuriaga

## *San Inazioko zubia*

San Inazioko zubiaren erdiko zatiaren kokapenaren ikuspegi panoramikoa da. Holandako bi gabarraren bidez eta itsasgoran ekarri zuten pieza ainguratze-punturaino. San Inazio auzoko Balear Uharteak kalea eta Zorrotzaurre uhartea lotzen ditu zubiak. 2020ko urtarrilaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, pieza bakar batean jarri zen kanalaren gainean. 75 metro luze eta 28 metro zabal dituen dilatazio baturik gabeko zubi integrala da. Ez du euskarririk ibilguan eta altzasiru herdoilgaitzeko eta hormigoizko egitura batean eraiki da. Erdiko zatian 34 metro gora altxatzen diren bi arku simetriko ditu.



Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

# YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



## ATXURI TABERNA

Luzarra 1  
Deustu  
946 75 40 17

Iragar zaitez

# Prest!

-en

tel. 94 447 10 42  
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso  
Pertsianak**

Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
48015 Deustu-Bilbao  
Tel.: 656 410 475  
alonsoper@outlook.com

# Optica Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?  
Deustuko Liburudenda  
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

# Eintoreria La Flor



Julio Urquijo 3 - Deustu  
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua



**Probatu herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea  
48014 Deustu  
tel. 94 475 22 33  
matxintxu@euskalnet.net

# Matxintxu aek euskaltea

Matrikula zaitez! 

# Nailan

Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
nailanparquet@euskalnet.net



# RONDOKO HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla  
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

# Bitxidenda Sabin Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
Tfnoa 94 475 63 16

# PERSIANAS KM CERRAMIENTOS

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
TEL. 94.447.70.32  
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
www.persianaskm.com

# BIDAURRE

elektrizitate eta margo-lanak  
2daurrelan@gmail.com  
669 42 76 23



Odontologia orokorra eta prebentiboa  
Ume eta helduak  
Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
Peridontzia eta protesi kengarriak  
Ortodontzia

PADI  
OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
E.P.S. 425/97

## Aldi supermekatuaren irekiera beharrezkoa ikusten duzu?



**Ane  
Deustu**

Ez, ez dugu horrelako supermerkatuaren beharrik. Askotan zaila bada ere guztion ardura nda komertzio lokal txikiagoetan kontsumitzea eta tokiko merkataritza sustatzea.



**Mikel  
Deustu**

Beste supermerkatu baten konkista. Konkurrentzia desleiala esaten zaiona gertatzen da. Barazkiak eta fruta merkatuan erosten ditugu baina gainontzekoa Eroskin. Deustun biztanleriaren hazkundearekin, denda eta supermerkatu gehiago ireki dira. Komertzio txikiarentzako ezkorra da Aldiren irekiera baina kapitalismoaren eboluziotik dator.



**Mikel  
Deustu**

Nik behintzat ez dut uste hara joango naizenik. Badaude supermerkatuak, orain beste bat gehiago... ez dut uste beharrezkoa denik baina zabaldu badute eurak jakingo dute zergatik. Nire ustez ez du gauza handirik ekarriko.



**Iñigo  
Deustu**

**Aldi supermerkatua gustoko  
dut saltzen duen produktua-  
gatik baina ez dut beha-  
rrezkoa ikusten Desutun.**



**Leire  
Deustu**

Komertzio txikia desagertzen ari da, Deustuko merkatua bera ere desagertzear dago gero eta jende gutxiago datorrelako. Nahi duguna da ilara bakarra egin, itxaron gabe... Abiadurazko gizartean bizi gara eta komertzio txikiak denbora edo beste lasaitasun bat behar du. Ez dut uste beharrezkoa denik Deustun supermerkatuak soberan ditugu eta.



**Tere  
Lekeitio**

Deustun beste supermerkatu bat jarri badute, askok kontsumitzen dugunaren seinale da. Beraz, norberaren hautua da zein dendatan egin erosketak.





# harkua bete herria

>> EUSKAL KULTURA

## AGOTEAK, EUSKAL HERRIKO HERRI AHANTZIA

**Testua:** Itxaso Sainz

Ez dakit noiz edo noiz “agote” hitza entzun duzuenik; niri, egia esateko, nahiko arrotza egin zitzaidan terminoa lehen aldiz entzun nuenean. Hori bai, behala sekulako jakinmina eragin zidan eta ikertzera ekin nion ea zer aurkitzen nuen horren inguruan. Tamalez, topatutakoak albiste desatseginak baino ez zizkidan ekarri. Hala ere, uste dut agoteak nortzuk izan ziren ezagutu beharra daukagula; azken batean, geure herriaren parte izan baitziren.

Bada, goazen haien inguruan zerbait argitzera, ezta? Labur esanda, agoteek XII. mendetik XX. mendera arte Nafarra aldean, Arizkunen, bereziki, baztertuta bizi izan zen komunitatea osatzen dute. Baina nortzuk izan ote ziren agote dena delako horiek? Nondik etorri ziren gurera? Zergatik zokoratu zituzten denbora luze?

Ezer baino lehen, haien jatorriaz arituko naiz. Horrek berak hainbat buruhauste sortu ditu ikerleen artean; oraindik ere, horietako asko ez baitira ados jartzen. Teoria batzuen arabera, agoteek jatorri bisigodoa zuten, ilehoria eta azal zuria egotzita; beste batzuen ustetan, aldiz, musulmanen oinordekoak ziren. Hala ere, teoria hedatuenean esanetan, XII. mendean Frantziatik etorri zitzaizkigun; beharbada, legendar gaixotasunetik ihesi. Hori horrela, Toti Martinez de Lecea idazleak aurrekristautzat jotzen ditu, ez baitzuten bat egin orduko Eliza Kristauarekin. Areago, gurutzea tortura sinbolotzat jotzen zuten, bai eta Jesukristo irudia ukatu ere. Halaber, emakumeak ardura postuetan aritzen ziren. Horregatik guztia-gatik, garaiko dokumentuek agerian uzten zuten agoteak ez zirela batere Elizaren begiko, “legendaridun izpiritual” modura zituzten eta.

Dena den, bazterketa hori ez zen erlijio kontuetara mugatu. Egunerokotasunean egoera latzean bizi ziren. Euren artean ezkontzera behartuta zeuden. Horrek deformazio genetikoak ekarri zituen, baita haiekiko bazterkeria nahiz madarikazioa elikatu ere. Kanean zebitzala, bizkarrean katu baten hanka gorri bat margotuta izan behar zuten, bai eta joare txiki bat astindu ere. Era berean, herrian bertan ezin ziren bizi (Bozate auzora alboratu zituzten, erdigunetik urrunxeago egon zitezten), eta etxeek ezin zuten Baztango armarria eduki, “benetako herritarrak” ez baitziren.

Gainera, agoteekiko mespretxu hori belaunaldiz belaunaldi igarotzen zen. Egundokoak eta bost entzun behar zituzten gixajok: lizunak zirela, legendarra kutsatzen zutela, harropuzak zirela, homosexualak, aztiak, usain txarrekoak, edota animaliekin sexua zutela... Eta ezinegon horrek 1817ra arte iraun zuen, Nafarroako bizilagun guztiek eskubide berberak zizutela babesten zuen legea atera zen arte. Haatik, gizarteratze prozesua oso mantsoa izan zen, legea ezarri zenetik berrogeita hamar urte baino gehiago igaro behar izan zirelako bazterkeriarekin behingoz amaitzeko.

Egun, komunitate honen zantzu bakan batzuk baino ez ditugu; besteak beste, Iñaki Elizalderen “Baztan” filma edota Xabier Santxotena eskultoreak euren omenez zabalduak museoak. Hori bai, ezin dugu ahazturan galdu agoteen alboraketa Europak inoiz ezagutu duen bortitzenetakoa izan zela. Euskal Herrian aske bizi nahi izan zuen beste herri zapaldu baten memoriak dira hauek, geure herria den bezala ulertzeko ezinbestekoak.



## EBk Meta ikertuko du Instagramek eta Facebookek adingabeen artean adikzioa sustatzen dutelakoan



Bruselak prozedura bat hasi du Meta erraldoi teknologikoaren aurka, uste baitu Instagramek eta Facebookek adingabeen artean adikzioa sustatzen dutela. Europako Batzordeak (EB) zalantzak ditu Metak “nerabeen zerbitzu digitalen legean zehaztutako betebeharrak betetzeko nahikoa egin ote duen”.

Thierry Breton Barne Merkatuko Europako komisarioak adierazi duenez, ez dago argi Metak sare sozial horietan, hau da, Facebook eta Instagramek, gazte europarren osasun fisiko eta mentalean izan ditzakeen ondorio kaltegarrien arriskuak saihesteko nahikoa neurri hartu ote dituen. Erabakia 2023ko irailean Meta konpainiak Batzordeari aurkeztutako behin-behineko txostena eta EBk egindako galderei enpresak emandako erantzunak aztertu ondoren hartu dute.

Batzordeak hiru eremu nagusi aztertuko ditu sakon. Lehenik eta behin, bi plataformek mendekotasuna sortzeko duten arriskua aztertuko dute. Bigarrenik, erabiltzaileen adina egiaztatzeko duten mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu nahi dute. Azkenik, edukiak gomendatzerakoan adingabeei beharrezko pribatutasun eta segurtasuna eskaintzen zaien aztertuko dute.

Ikertze prozesu honek Metari presioa egingo dio, nerabeen osasuna babesteko neurri gehiago hartzera behartuz.



### Informazio gehiago:



## IBARREKOLANDAKO JAIAK!

*Ibarrekolandako auzotarrentzat oso data seinalatuak dira maiatzeko azken eta ekaineko lehenengo asteburuak, horietan ospatzen baitira Ibarrekolandako Jaiak. "ITV" (Ibarrekolanda de Toda la Vida) aldarria matenduz aurten Ibarrekolandako Jaiak betiko giro familiarra eta hurbiltasuna bizi izan dute; dena den, ezinbestekoak diren bi osagai hauei kuadrilla eta jarduera berriak gehitu zaizkie, playback edo kuadrilla lehiaketa besteak beste.*



Testua eta argazkiak: Arangoitiko Euskal Jaia

Azkenengo hilabeteetako lan, plangintza eta bileren ondoren, bazirudien azkenean iritsi zela auzokide guztiak espero zuten unea: jaien hasiera. Benidorm kaleak jaietako itxura hartzen hasi zen astean zehar, lehenengo atrakzioekin, eta geroago, txosna eta artisau-azokarekin.

Maiatzaren 24an, Goi-Herri dantza taldearen eskutik eta txosnaren irekierarekin hasi ziren jaiak. Jendea dantzatzerara animatu zen eta pixkanaka auzokidez bete ziren txosnagune eta inguruak.

Horren ostean, jaietako pregoiarekin batera, txotx herrikoia ospatu genuen, kuadrillentzako une paregabea sortuz.

Lehenengo asteburu honetan hainbat taldek girotu zituzten kaleak; ostiral eta larunbat gauetan Kastastro Sin Fe taldea eta Diskodantza artistak egon ziren oholtzan hurrenez hurren. Egunean zehar, ordea, Kokotean Kolpe fanfarria, Lee Junior eta Detomeitos taldeak egon ziren auzoko kaleetan.

### KOMEDIA MADARIKATUA DIVINA TRAGEDIA

OTSAILAren 16tik 25era

Dramaturgia  
TOMÁS AFAN MUÑOZ  
Zuzendaritza  
SAIOA IRIBARREN MUÑOZ

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

Antzezleak  
SILVIA LARRAURI DE MIGUEL,  
LUIX MITXELENA MITXELENA,  
ANDREA MORA AHEDO, UXUE FUERTES VECA,  
ZIGGY DOCHERTY SANCHEZ,  
AITZOL VILLAHOZ PRIETO



**P6**  
SALLE SUBARRANDE  
COMPARTIA ZIBOR



Larunbat goizean, Txurrimuskis kuadrilak, urtero bezala, goitibera tailerra prestatzen zuen bitartean, auzoko talentua futbito txapelketan zein zumban bildu zen. Hori gutxi ez balitz, erraldoi eta buruhandien kalejira izan genuen auzotik Ondalan konpartaren eskutik. Auzoko hurrek (eta ez hain haurrak direnak) bainujantzia janzteko eta aparrak disfrutatzeke aukera izan zuten ere, hau bai zortea! Arratsalde, kuadrilak euren artean lehiatu ziren hainbat abilezia froga desberdin gaindituz; giroa apartekoa izan zen eta barreak ez ziren falta izan.

Igandean, jende mordoia hurbildu zen jaietako lehenengo lehiaketa gastronomikora. Honetan, barrun gorriak eta tortillak nonahi aurki zitezkeen, kuadrila kopurua izugarria izan baitzen. Eguraldi txarrak ez zuen jendea kikildu, eta Ibarrekolandako kaleek usain goxoa hartzen zuten bitartean, euskal kantak eta Bilbainadak goizean goiz zein Goi-Herri dantza taldeak eguerdian ikuskizun apartak eskeini zizkiguten.

Astean zehar ez zen erritmoa moteldu, egunero ekintzak eta gozatzeko aukera izan zuten musika zaleek eta auzoko txikienek ere. Astelehen zein asteartean, haurrentzako tailerrak Francisco Durrio kalean eraman zituzten aurrera. Bestalde, ohitura denez, Juan Crisostomo de Arriaga kontserbatorioko ikasleak auzoko kaleetatik jotzen ibili ziren. Astelehenean haize-metaleko musika taldeak ikuskizun ibiltaria antolatu zuen. Asteartean, berriz, "Las clases de tuba" ipuin musikatua aurkeztu zuten. Asteazkenean, umeentzako txokolatadarekin batera, kontserbatorioko bandak abesti eta obra ezagunekin girotu zituen kaleak. Ostegunean auzoko kuadrillak txosgunearen inguruan batu ziren pintxo-poteaz eta Jazz musikaz disfrutatzeke. Kontserbatorioko big band-a, Ilezkorak eta Le Jazzcomb talde eta konboek esperientzia paregabea eskeini zioten hurbildu zen jendeari.

Asteburua bueltan zegoen, eta horrekin batera auzotarren bizitasuna eta gogoak. Ostiral arratsaldean XIII. goitibera jaitzierak haur eta gazte asko batzea lortu zuen; hauek kementsu aritu ziren eslalom eta abiadura frogetan. Aurten, lehiaketen artean ospe eta historia gehien daukan ekintza hau Yogurines kuadrilak antolatu zuen. Denbora aurrera zihoan, eta Ibarretukadak auzoko lagun guztiak erritmo desberdinez kutsatzen zituen bitartean, jendea



berotzen hasita zegoen. Egunak gauari eman zion bidea, eta horrela, Bidean Erromeriak denetarikoko euskal abestiekin jarri zituen Ibarrekolandatarrak dantzan.

Bigarren larunbata ekintzaz beteta etorri zen, gazteentzako saskibalo txapelketarekin hasita, mo-zorro eta playback lehiaketarekin bukatzera arte. Tartean harrijasotzaileak, umeentzako Ibarrekolinpiadak, rol zein mahi jokoak eta pilo bat gauza gehiagok jendea animatu zuten. Bukatzeko, gauze Cul de Sac taldeaz gozatu zuten.

Igandea iritsi zen, eta paella ez zen kaleetatik usaintzen zein usain bakarra, jaien amaiera ere hurbil senti zitekeen. Hala ere, gustora ibili ziren bertaratu ziren kuadrilla guztiak. Tripa bete ostean, sari banaketa baino lehen, Etorkizuna Eskaut Taldeak antolaturiko bingo musikatuak itxiera eman zien jaiari.

Poztasunez bukatu dira aurtengo jaiak, pregoian aldarrikatutako "auzotik eta auzoarentzat" leloa betez. Ibarrekolandako Jaiak erasorik gabeko jaiak izan dira eta hori pozteko modukoa da ere. Hurrengo urtera arte! Gora Ibarrekolandako Jaiak!

# harkua bete herba

>>NUTRIZIOA

## KIROL HIDRATAZIOA UDAN: ERRENDIMENDU ETA OSASUNERAKO GAKOAK

Testua: Ainhoa Maiztegi

Udak, tenperaturaren handipena dakartza eta hori arriskutsua izan daiteke kirolarientzat hidratazioa ondo zaintzen ez badute. Nutrizionista bezala, ezinbestekoa dut azpimarratzea zer nolako garrantzitsua den ariketa fisikoa praktikatzan ari garenean likidoen ingesta egokia mantentzea. Izan ere, beroak likido zein elektrolitiko galera handitzen du, eta horrek kirolarien bai errendimendu bai osasuna arriskuan jar dezake.

Kirola praktikatzan ari garen bitartean, gorputzak, ura izerdiaren eta arnasketaren bidez galtzen du gehienbat. Izerdia gure organismoak uzkurdura muskularraren ondorioz sortutako beroa disipatzeko duen mekanismo nagusia da, baina urarekin batera, sodioa, kloroa, potasioa eta kaltzioa bezalako mineralak ere galtzen dira. Galera hauek nabarmenak izan ahal dira, eta muturreko egoeratan, orduko hiru litrotara heldu daiteke galera hura. Hori dela eta, hidratazioak ariketa fisikoa praktikatu baino lehenago, bitartean eta ostean lehenatsuna dauka.

Bai tenperatura altuek, bai hezetasan baxuek, izerditze-tasa handitzen dute. Bestalde, beroarekiko aklimatazio baxuak deshidratazioa larriagotu dezake. Gainera, kafeina ingestak (efektu diuretiko handitzen du) eta egarri sentsazio baxua izateak, likido birjarpen egokia burutzea zaildu dezakete.

Deshidratazioak kirolariaren errendimenduan eta osasunean ondorio larriak izan ditzake. Ondorio ohikoenen artean; termoerregulazio gaitasunaren gutxitzea kokatzen da. Honek, gorputz-tenperaturaren handipen

arriskutsua izan dezake ondorio gisa. Odol bolumenaren txikiagotzea ere jarri da agerian. Ondorioz, muskuluetara doan oxigeno eta nutrienteen garraioan eragin txarra du eta honek nekea areagotu dezake. Bestalde, indarra eta erresistentzia murriztuta ikusten dira eta lesio, karranpa, eta hiponatremiarazoak izateko arrisku handiagoa dago ez baldin badira elektrolitoak era egokian berreskuratzen.

Hidratazio maila neurtzeko hainbat estrategia erabili ahal dira. Izan ere, ez dago kirolari guztientzat estandarizaturiko neurri bakarra. Kirola egin baino lehen eta osteko gorputz-pisua, aukera ona izan daiteke galdutako likido kantitatea neurtzeko. Horretaz gain, gerneru koloreak informazio erabilgarria eman ahal digu hidratazio mailaren inguruan. Gerneru kolore argiak hidratazio egokiaren indikatzaile da, oster, kolore ilunago batek likidoen ingesta handitzearen beharrezana iradokitzen du.

Edari isotonikoa udan entrenatzen duten kirolarientzat aukera ezinhobeagoa da, ura ez ezik, galdutako elektrolitoak berreskuratzeko balio baitu. Honek, odol-plasmak daukan elektrolito kontzentrazio antzerakoa du, eta ondorioz, bere xurgapena errazagoa da eta oreka elektrolitiko mantentzen laguntzen du. Nahiz eta isotoniko gisa izendatutako hamaika produktu topa ahal ditugun denda fisiko zein online dendetan, ezinbestekoa da euren osagaien zerrenda eta ratioa egokia izatea. Parebat zertzelada ematearren: isotoniko batek abiadura handiko xurgapena daukaten karbohidratoez osaturik egon be-



## harkua bete herba


har du (maltodextrina eta fruktosaren binomioa aukera paregabea da), baita gatz edo sodioez. Euren arteko ratioa maltodextrina:fruktosa 2:1 eta 1:0,8-koa izan beharko litzateke. Gainera, bidoiaren guztizko karbohidrato kantitatea ondo neurtzea ezinbestekoa izango da kontzentrazio egokia lortzeko. Bidoiak duen guztizko mL-toak x 0,08 izango litzateke karbohidratoen (maltodextrina + fruktosa) grapu kopuru totala. Noski, beti bezala, gomendio hauek pertsonalizatu beharko genituzke kirolariaren kontextu (kirol mota, helburua, inguruko hezetasun maila, ...) guztia kontuan hartuta.

Ondorioz, hidratazio egokia mantentzea kirolariaren errendimendurako eta osasunerako funtsezkoa da bereziki udako hilabeteetan. Ongi hidratatzean gorputzaren temperatura erregulatzen laguntzen du, errendimendu fi-

sikoa optimizatzen du eta deshidratazioarekin lotutako arazo larriak ekiditen ditu. Hori dela eta, hidratazio eta elektrolitoen berriztapen estrategia pertsonalizatua jarraitzea ezinbestekoa da udako kliman kirolaz modu seguruan eta eraginkorrean gozatzeko.



**Ainhoa Maiztegi**

 @ainhoamaiztegi.nutricion

# eidabe

## ekimen kulturalak

[www.eidabe.com](http://www.eidabe.com)

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu





# kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



**DANEL LAUZURIKA ERKIAGA**

*Tsundokeroa*

## BEGI ZOLI

Aurreko batean aipatzen nuenez, aspaldi hontan zeharo gogaitzen nau gutarrismoak. Lauzpa-bost hilabetera, baina, halakotzat hartua izan daitekeen lan bat gomendatzera natorkizue: Eneko Bidegainen Bichta éder.

Guk nahi ala ez, Busturialdean pare bat Guggenheim jarriko dizkiguten garaiotan, komeni da bichta Iparraldera higitzea. Bertan gutxienez 1980ko hamarkadatik ari dira higiezinen espekulazioaren eta masa-turismoaren aurkako borrokan. Lapurdi kostaldeko ingurumenaren aurkako triskantzak, laborantzarako lurren desagerpena, etorkizun beltzaren aurreko gazteen ihesa, jendartearen etenik bako frantseseta eta euskararekiko herra... Horiek eta gehiago biltzen ditu jauregi baten lurretan antolatutako makro proiektu turistikoa ardatz duen lanak.

Kutsu politikoko thrillerra da: suspentsea, gertaerak, pertsonaia berrien agerpenak eta matzari gehitutako hariak bata bestearen atzetik, arintasunez eta erritmo biziz idatziak. Eleberriak literarioki ez nau erabat asebate, baina zeharo maitemindu nau idazlearen begi zoliak. Izan ere, ETA osteko jendarte euskaldunaren erradiografia zorrotza da Bichta éder. Politika instituzionalaren bidegurutzeta, militante profesionalen biziraupenerako sena, leialtasun politikoaren marra gorriak... Nabarmentzekoa da Bidegainen begi finez erretratzen duela gizonezko militantearen figura, baita euskal prentsak informazioaren oihanean lehiatzeko duen desabantaila politikoa ere. Eta, ororen buru, galdera zorrotz batek zeharkatzen du liburua: "Porrotak etsipena eta individualismoa, ala individualismoak porrota?".

Kontuan hartzeko ekarpena, ezbairik gabe.

## AZKENALDIAN ZAIL EGITEN DA

*Doinua: Badira hiru aste*



**JUAN FERNÁNDEZ AURRE**

*Elorri bertso-eskolako kidea*

Azkenaldian zail egiten da esna topatzea gaba.  
Gure hondartzako hondarra ez da Bakarti egongo jada.  
Falta genuen denboraldia Helduta dago bertara.  
Beraz, norberak hauta dezala Hau dastatzeko parada.  
Eztanda bidai edo parranda Helburu bakarra da.  
Oso ondo pasa oporraldia, Gutziz gozatu udara!

Erotutako denboraldia, gau luzea, San Juan sua.  
Harroputz eta handikeritan galtzen dugu guk burua.  
Hamar orduko hegaldi batek Ez nau egingo aditua.  
Bidaian jarri behar genuke Gure bertoko ingurua.  
Uste duguna baino gertuago Daukagu paradisua.  
Udagoiena iritsiko da kendu dezagun izua!



# euskaraz e// BARRA // BARRA



Ikur honek euskara erabiltzeko aukera bermatzen dizu



Bilbao

# EUSKARARA HURBILTZEKO HARRERA IKASTAROA

LIMBA BASCA CURSURI PENTRU I MIGRANTI

CURSO DE EUSKARA PARA MIGRANTES

COURS D'EUSKARA POUR DES MIGRANTES

دورة في لغة ؤشكيرى للأجانب



**EMAN IZENA! MATRICÚLATE!**

**LUNES Y MIÉRCOLES O MARTES Y JUEVES**

**9:30-11:30 O 19:00-21:00**

Telefona: 613171908

Helbide elektronikoa: [berbaizuko@gmail.com](mailto:berbaizuko@gmail.com)

